



3 UDALA Atsobakar egoitzaren eskualdatzea hizpide

Ohiko udalbatzarrean Atsobakar egoitzaren eskualdatzea izan zen gai nagusia. Aldundiak bere gain hartuko du herriko zahar egoitza eta alderdi guztiak honen alde agertu arren, PSE-EEK eskatuta hitzarmena onartu aurretik, txostena osatzeko erabakia babestu zuten hainbat alderdik. Hau dela eta, eskualdatze hitzarmenaren azken onarpena gaurko deitutako ez ohiko bilkuran erabakiko da.

4 MUSIKA Akordoiaren festa Zero Setteren jaialdian

Herriko akordeoi orkestrak urteroko bideari jarraiki, jaialdia antolatu zuen larunbatean Manuel Lekuonan. Honetan ibilbide luze eta arrakastatsuko musikariak izan ziren. Joxan Goikoetxea soinu-jole hernaniarra eta bere taldearen emanaldiaz gozatu ahal izan zen lehenengo eta jarraian, doinu nahasketa ekarri zuen Joao Fradek eta Munir Hossnek osatutako bikoteak. Bukatzeko herriko taldeak hiru kanta eskaini zituen.



KOOPeratzen proiektua aurkeztu dute Lasarte-Orian kokatuko da eskualdeko programa berritzailea



Eskualdeko udal-ordezkariek, KOOPeratzen proiektuan parte-hartuko duten enpresetako kideak eta Lanbideko ordezkariek aurkezpenean.

Ekimen "sozial" gisa aurkeztu zuten KOOPeratzen proiektua ostiralean, Lasarte-Oriako Lanbide Eskolan. Tokiko garapen sozioekonomikoan "eragin" eta eskualdeak bizi duen "langabezia egoerari" aurre egiteko egitasmo honek 20 proiektu, enpresa sozial edo kooperatibo bihurtzeko helburua du, aholkularitza eta jarraipen gune bat ematearekin batera. Herrian kokatuko da egoitza, Lanbide Eskolan.

Eskualdeko ekintzaileen ideiak enpresa sozial edo kooperatibo bihurtuko dituen formakuntza proiektu berria aurkeztu zuten ostiralean Beterriko alkate, zinegotzi eta teknikariek.

"Ekintzailetza ekonomiko berri bat garatzeko lehen pausoa da KOOPeratzen, pertsonen eta komunitateen beharrak modu demokratiko, jasangarri eta berritzaileen bidez asetuko dituen", adierazi zuten ostiralean Lasarte-Oriako Lanbide Eskolan egindako agerraldian.

Proiektuaren helburua

"Pertsonak trebatu eta aholkularitza eskaintzearekin batera, *coworking*-a edo lan kooperatiboa praktikan jarri nahi dugu KOOPeratzen-en bidez", adierazi zuten ekimenaren bultzatzaileek.

Zerbitzu honek enpresa berriak sortzeko beharrezkoak diren formazioa, baliabideak, azpiegiturak eta aholkularitza eskaintzea du helburu.

Ekimena langabezian dauden eta enpresa eredu berriak abiatu nahi dituzten pertsona

guztiei bideratuta dagoela adierazi zuten KOOPeratzen proiektuaren aurkezpenean: "Formakuntza, beka-sariak, jarraipen indibiduala eta finantzazio aholkularitza emango zaizkie".

Izena emateko modua

Gaurtik aurrera irekita dago izena emateko epea azaroaren 28ra bitartean, eta abenduan jarriko da martxan sei hilabete iraungo duen egitasmoa.

Izena-emateko interesa dutenek bide bat baino gehiago daukate horretarako: Udal-etxean, Lanbideren bulegoen bitartez edota *kooperatzen.net* webgunearen bidez egin daiteke eskaera.

Informazio gehiago nahi duenak 943 30 42 21 telefonora deitu edo *ekinean@andoain.org* helbide elektronikora mezu bat idatzi dezake.

Egoitza Lasarte-Orian

Pablo Barrio alkateak adierazi zuen "oso garrantzitsua" dela halako proiektuak udalerrian kokatzea: "Oraindik jasaten ari garen krisiak gogor kolpatu du herria azken urteotan, eta horrek tokiko garapen sozioekonomikoan ahaleginak bikoiztea eskatu digu".

Era berean, proiektua Lanbide Eskolan kokatzaren garrantzia nabarmendu zuen: "Azpiegitura indartsu bat osatzeko ahaleginak egiten ari gara. Zubilan egitasmoaren eraginez, enpresa berrien sorrerara begira dagoen gune bat bihurtu da Lanbide Eskola eta espazio honi orain ikuspegi kooperatibo eta soziala gehitu nahi diogu KOOPeratzen proiektuaren bitartez".

Herriko "elkartegintza" ardatz, etorkizuneko ekonomia eredu "indartsu eta iraunkor" baten "zimenduak" jartzen ari direla esan zuen alkateak.



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361080 Tel./Faxe: 943 372521

GIZARTEA

Kulturartekotasuna sustatzeko bazkaria

Munduko herrialde ezberdinetako jaki dastaketa egin zuten Sasoetan Burunzpe guraso elkateak antolatuta

Eskolan dagoen kulturantzatasuna lantzen ari da azken urteetan Burunzpe guraso elkarteak ekintza desberdinekin. Eredu honetan egiten ari diren ahalegina bitan sartu dute gainera. Aurten esaterako, Guraso Elkartearen Hezkuntza-jarduera Onen 4. lehiaketa garaile izan da herriko taldea. Hain zuzen, atzokoa bezalako ekintzak dira kulturen arteko integrazioa eta ezagutza bultzatzen dutenak. Eskolako jantokian, kultura ezberdinetako gurasoek prestatutako jaki dastaketa egin zuten. Honetan parte hartu zuen Pablo Barrio alkateak.

TXINTXARRI

Aniztasuna lantzeko ekintza ezberdinak egiten ditu Sasoeta-Zumaburu eskolako Burunzpe guraso elkarteak ikasturtean zehar. Izan ere, herriko eskolan, 21 herrialdeko ikasleak daude egun ikasketak egiten, komunitate handiena Nikaraguarak direla aipatu dute Burunzpekoek.

Atzokoan, kulturartekotasuna eta batez ere, kulturen arteko ezagutza landu eta bultzatzeko, bazkari berezia

egin zuten eskolako jantokian.

Bigarren aldiz, aurreko deialdiak izan zuen arrakasta ikusita, jatorri ezberdinetako gurasoek euren jaki tipikoak prestatu zituzten eta bazkari ederra egiteko aukera izan zuten ekimenean izena eman zuten 22 familiek.

Honetan denetarik izan zen bertako zein kanpoko errezetak, gaziak zein gozoak. Horrela Ekuador, Txile edo Marokoko jakiak Euskal Herria, Galizia edota Extremadurakoekin dastatu



Herrialde askotako jakiak dastatzeko aukera izan zuten Sasoetako jantokian egindako kulturartekotasun bazkarian.

ahal izan zituzten. Guraso elkartearen baitako Euskara batzordeak bultzatutako ekintza izanda, guraso ez euskaldunentzat "joko" bat ere prestatu zuten.

Guztiei bazkari giroko esaldi laburrak euskaraz nola

esaten diren banatu zitzairen eta hauek erabiltzera animatu zituzten euren seme-alaben laguntza onartuta.

Gonbidatuen artean, herriko alkatea Pablo Barrio izan zen eta honek halako egitasmoek herrigintzan duten

garrantzia azpimarratu zuen.

Elkar ezagutza ahalbidetu eta integrazioan laguntzen dutelako besteak beste.

Festa giroan egin zuten bazkaria eta karaokearekin borobildu nahi izan zuten igandeko topaketa hau.

Azken bortxaketa salaketaren aurka

Urriaren 24an herriko emakume batek egindako bortxaketa salaketaren aurrean, elkarretaratzea egin zen joan den asteko astelehenan Okendo plazan, eraso hori salatzeke eta emakumei elkartasuna adierazteko.

Herritar asko bildu zen plazan. Hainbat udal ordezkari ere joan ziren Okendo plazara; tartean, herriko alkate Pablo Barrio eta hainbat alderdietako zinegotzi. Ordu erdiko elkarretaratzea egin zuten bertaratutakoek.

Elkarretaratzearen amaieran, gogor salatu zuen eraso Maialen Aranburuk, herriko emakume talde baten izenean. Testu bat irakurri zuen Aranburuk; emakumei eta bere familia eta lagunei



Herritarrek azken eraso salatu nahi izan zuten Okendon.

"elkartasuna" adierazi eta eraso hauek gogor salatzea "beharrezkoa" dela azpimarratu zuen. "Emakume aske eta autonomoak izan nahi dugu. Ez dugu biktima izan nahi ezta beldurtuta bizi ere".

Aurtengo bigarren kasua

Urriaren 24koa ez da aurten

herriko emakume batek salatutako lehenengo eraso izan. Ezagutza eman zenez, beste emakume bat erasotua izan zen urtarilaren 1ean.

Elkarretaratzea egin zen baita ere urtarila bukaeran, erasotua izan zen emakumei elkartasuna eta babesa adierazteko hain zuzen.

'Tratu on bat' egutegia

Deialdia egin du Lasarte-Oriako Udalak, hurrengo urteko 'Tratu on bat' egutegia prestatzen hasteko. Bilera egingo dute gaur Villa Mirentxun, 13:30ean. "Hirugarren sektorean lan egin eta egutegian parte-hartzeko interesa" duten pertsonentzat egin du deialdia Udalak.

"Egutegia osatzen duten sei argazki-konposizioetako bakoitzean Lasarte-Oriako merkataria eta ostalariek benetako presentzia izatea izango da horien inplikazioa erakusteko modurik onena", adierazi du Udalak.

Udalak azpimarratu du "hirugarren sektoreak herrian laguntza, bultzada eta proiektio handiena" izatea dela 'Tratu on bat' egutegiaren hel-

burua: "Lasarte-Oriako garapen ekonomikoan inplikaturik dauden guztion artean lortu behar dugu helburua, Tratu on bat markaren eta egutegiaren bitartez".


'Lasarte-Oria Guztiona'

Herriaren itxura eta bertako gune desitxuratuak hobetzeko proiektu artistikoa diseinatzea. Hori da Lasarte-Oriako Udalak martxan jarritako 'Lasarte-Oria Guztiona' egitasmoaren helburua. Bihar aurkeztuko dute proiektua, Villa Mirentxun, 19:00etan. Herriko artistak informatu nahi ditu Udalak, eta haien arteko elkarlana sustatu.

Udalaren 'Biziberritzen' proiektuaren barnean dago 'Lasarte-Oria Guztiona'.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Jon Altuna
E. Iñigo Gonzalez

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Jone M. Hernandez,
Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu
Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA

Batzarrak atzeratu zuen Atsobakarren eskualdatzea

Sasoeta Zumaburu eskolako gurasoek euren aldarria eraman zuten ohiko bilkurara

Atsobakar zaharren egoitzaren eskualdatzea jasotzen duen txostena osatuta ez dagoela argudiatuta, PSE-EEko Jesus Zaballosek Aldundiarekin sinatu beharreko hitzarmenaren onarpena atzeratzea eskatu zuen eta EAJ, PSE-EE eta Marisa Zubiriren aldeko bozkekin onartu egin zen. Hala ere, alderdiak ados agertu ziren herriko egoitza Aldundiak bere gain hartuko duelako.

TXINTXARRI

Luze jo zuen astearteko bilkurak. Lehenengo gaia udaleko langileentzat jazarpen eta beste arrisku psikosozial batzuen alorrean izan daitezkeen gatazken prebentzioarako eta konponbiderako jarduera-protokoloaren onarpena izan zen.


Zaballosek kritikatu egin zuen: "Protokoloak ez du udal langile guztien onarpena". Pablo Barriok aipatu zuen 28 urtetan halakorik ez zela egin Udaletxean eta hutsune hori betetzeko landu zela hain zuzen txostena. Bozketan, honen alde egin zuten Bildu, LOHP eta Marisa Zubiri zinegotziek; kontra PSE-EEkoek eta EAJko bi ordezkariak abstentzioaren alde egin zuten. Aipatu behar da ez zela egon Vanessa Velez PPko ordezkaria.

Txostenaren onarpenarekin, Ana Prietok azpimarratu zuen "protokoloaren lanketa parte hartzailea izan da, eztabaida eta proposamenak egiteko aukerarekin". EAJko Estitxu Alkorta euren bozka azaldu zuen esanez "ez dugu

prozesu honetan injerentzia politikorik nahi, horregatik ez gaude guztiz ados egingadakoarekin".

Jarraian, Atsobakar zahar egoitzaren eskualdatzearen hitzarmena onartu behar zuten alderdiek. Guztiak ados egon ziren "aspaldi hartu behar zuen bere gain Aldundiak egoitza". Gizarte Zerbitzuetako buruak esan zuen "guretzat historikoa da, 2008tik legeak dio egoitza Aldundiaren ardura izan behar duela, Udalarentzat ia milioi bat euroko gastua suposatzen du egoitzak urtero eta orain, diru hori liberatu egingo da beste zerbitzu batzuk indartzeko".

EAJk esan zuen "txostena ez dago osatua, orain onartzen badugu ez dugu jakingo zein baldintzetan egiten dugun". Zaballosek bide bereetik jo zuen, honek adostasun osoa agertu zuen eskualdatzearekin baina txostena erabat osatuta ez zegoenez "proposatzen dut onarpena aste pare bat behintzat atzeratzea txostenak balorazioa izan arte". PSE-EEren eskaera bozkatu zuten alderdiek, eta



Astearteko batzarrean ez zen Vanessa Velez PPko ordezkaria izan.

PSE, EAJ eta Marisa Zubiriren bozkekin onartu zen hitzarmenaren onarpena atzeratzea.

Mozioen tartean, ebolaren inguruko mozio humanitarioa auzetatu zuen PSE-EEk eta aurrera atera zen eta genero indarkeriaren kontrako nazioarteko egunari buruzkoa ere onartu egin zuten alderdiek aho batez.

Azken mozioa izan zen Bilduk aurkeztutakoa gardenetasunaren inguruko arautegi bat idazteko proposamenarekin. Iritzi ezberdinak plazaratu arren, onartu egin zuten alderdiek.

Somoto auzia

Galdera eta erreguen txandan, Zaballosek hartu zuen hitza eta udal gobernuari hainbat gairen inguruan galderak egin zizkion. Tartean, Somoto auziaren ingurukoa. Alkateak laster salaketaren

ingurukoak jakitera emango direla erantzun zion eta noren kontrako salaketa izango den galdetuta, Pablo Barriok Ana Urchuegiaren aurkakoa izango dela esan zuen.

Herriko eskolak

Plenoaren amaieran Sasoeta-Zumaburuko gurasoek euren aldarria plazaratu zuten. Udal eskola kontseiluaren azkeneko bilera maiatzaren 29an izan zela eta "bi aldiz erreklamatu dugu bilera egitea baina ez dugu erantzunik jaso. Bitartean uztailean, Jaur-laritzako Hezkuntza sailak Lasarte-Oriako eskolen egoerari buruzko txosten objektiboa bidali zuen Udal eskolako kontseilura eta herriko eskolara. Txosten horrek Lasarte-Oriako eskolaren historia kontatzen du eta sendo azaltzen du gaur egungo desoreka" esan zuen Burunzpe

guraso elkarteko Pello Sanchezek.

Bilera deituko dela erantzun zuen alkateak eta Boris Nogales zinegotziak, gurasoak erakusten ari diren indarragatik zoriondu zituen. Alkateak bilera deitu eta Burunzpek aipatutako askorekin bere adostasuna azaldu zuen.

Horien ondoren, herrian sortu berri den Podemos alderdiko kide batzuek hartu zuten hitza. Euren burua aurkeztu eta kalean informazio mahai bat jartzeko ordaindu behar duten tasaren aurrean zalantza eta kezka plazaratu zuten. Alderdi ezberdinak kideekin iritziak trukatu zituzten eta harremanetan jarraitzeko geratu ziren. Tasen inguruan beharrezkoak dituzten azalpenak emateko konpromezua hartu zuen Estitxu Alkorta Ogasun batzorde buruak.

Aldagela berriak ezindu fisikoentzat

Lasarte-Oriako kiroldegia 30 urte beteak ditu eta denbora honetan kiroldegiko arkitektura ez da ezindu fisikoentzat prestatua egon. Horren erakusgarri dira igerilekura igotzeko eskailerak.

Arazo hauek ikusi eta beharrezko aldaketek hitz egiteko zenbait bilera egin dira ezindu gazteenen gurasoekin eta aldagela igerileku ondoan dagoen kafetegian eraikitzea erabaki dute. Era horretan, ezinduek igerilekuaren maila berean dagoen aldagela bat izango dute.

Lanak guztira zazpi asteko iraupena izango dute. Tarte horretan, kiroldegiko kafetegian eta azpiko aldagelan eragina izango dute lanek, bai aldagela bera eraikitzeagatik, bai ur eta hustubide hartu-neak bertatik egin beharko direlako.



Hasi dira elbarrien aldagela berria eraikitzeko obrak.

UDALA

Kafetegia irekita

Udalak jakitera eman du kafetegiak martxan jarraituko duela lanak egin bitartean. Aldagela egiten ari diren gunean lehenik eta behin horma eraiki da, eta barruan ari dira orain lanak egiten, erabiltzaileei ahalik eta kalte gutxien eragiteko.

Zerbitzuak, beraz, normaltasunez jarraituko du. Behin lanak amaituta ordea, kafetegiak berak ere moldaketak jasango ditu.

Udalak sortu daitezkeen eragozpenengatik barkamena eskatu du eta lanek 55.650 euroko kostua izango dutela jakinarazi du.

KORRIKA

19. Korrikako materiala salgai Muntterin

Martxoaren 19tik 29ra egingo da datorren urteko Korrika. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea.

Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEKko kideek. Herritarrak euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldean.

DANTZA

Plaza-dantza saioa igandean

Hilabetero bezala, gorputza dantzan jartzeko aukera egongo da azaroko azken igandean, Okendo plazan. Kukuka, Erketz eta Ttakun Kultur Elkartearen elkarlanari esker, herritarrek euskal dantza tradizionalak dantzatzu ongi pasatzeko aukera edukiko dute. Hasiera batean saioa Okendo plazan egingo dute, baina eguraldi txarra egingo balu, Super BM denda ondoko arkupera joan beharko dute dantza egin nahi duten guztiek.

Hendaia, Donostia eta Erreterria bezalako hiritan egiten dira gisa honetako ekimenak, eta aurtan Lasarte-Orian ere bai. Irailean hasi ziren plaza-dantza egitasmoarekin, eta hilabete bakoitzeko azken igandean biltzen dira.

Akordeoiaren doinu ezberdinak

Herriko Zero Settek antolatutako XI. jaialdia izan zen larunbatean Manuel Lekuonan

Zero Sette Akordeoi Orkestrak antolatutako XI.akordoi jaialdiaz gozatu ahal izan zen larunbatean Manuel Lekuonan. Ohi bezala gonbidatu bereziak izan ziren herriko taldearekin oholtzan, Joxan Goikoetxea soinu-jole hernaniarraren doinuak izan ziren batetik eta Joao Frade akordeoilariak eta Munir Hossn gitarrajoleak osatutako bikotearenak bestetik.

TXINTXARRI

Akordeoi zaleek ederki gozatu zuten Zero Settek hamaikagarrenen Manuel Lekuonan antolatutako jaialdiaz. Honetan bereziki aipagarria izan zen doinuen ezberdintasuna. Pieza klasikoagoak batetik eta erritmo afrikar, brasildar eta portugaldarren fusioa bestetik. Ikusleen txalo zaparrada luzeak agerian utzi zuten emanaldiaren maila.

Kontzertua Joxan Goikoetxea musikari hernaniarrak hasi zuen bakarrik. Ondoren Idoia Noble, Eli Iragorri, Txema Garces, Josune Marin eta Oriol Flores lagundu zioten beste lau kantetan.

Goikoetxeak aspaldiko ezaguna zuen Joao Frade portugaldarra baina hain zuzen, larunbatean izan zuten lehe-

nengo aldiz, Lasarte-Orian, aurrez-aurre ezagutzeko aukera. Goikoetxeak Frade gaztearen ibilbide arrakastatsua aipatu zuen, soinu-jotzen birtuosoa dela esan zuen. Izan ere, nazioarte mailako sari garrantzitsuenak eskuratu ditu dagoeneko. Elkarrekin inprobisazio bat egitera animatu ziren Goikoetxearen taldearen laguntzarekin.

Doinu afrikarrak

Jarraian, eskaini zuten emanaldia Joao Frade akordeoilari portugaldarrak eta Munir Hossn gitarrajole brasildarrak. Elkarrekin grabatutako "Piriquitos e Botonetes" diskoan jasotako kantak eskaini zituzten. Doinu ezberdinen fusioa ekarri zuten eta entzuleak bidaia txiki bat egitera gonbidatu zituzten musika afrikarra, portugaldarra



Bi ordu baino gehiagoko iraupena izan zuen kontzertua bukatzean, oroigarria eman zitzaion musikariei.

TXEMA VALLES

eta brasildarra ardatz hartuta. Bikotea "oso gustura" sentitu zen oholtzan "entzuleen harre-bera beroagatik" eta 45 minutuko emanaldia izan zen euren, gaueko luzeena.

Azkenean, etxeko taldeak hartu zuen lekukoa. Zero Sette hiru soinu banda ezagun jo zituzten emanaldia bukatzeko. Musikariei oroigarria eman zien amaieran Pablo Barrio alkateak eta Joao Fradek Zero Setteko zuzendariari esker onez, oparitxo bat ere utzi zion.



Bikoteak emanaldi luzea eskaini zuen "entzuleen harrera beroak" animatuta.

Memoriaren eguna



Alderdietako ordezkariak Geroaren Memoria eskulturaren aurrean.

Biktima guztiak gogoan izan zituzten astelehen arratsaldean Lasarte-Oriako EH Bildu, PSE-EE, EAJ eta LOHP alderdietako ordezkariak Askatasunaren plazan. Ekitaldian ez zuen parte hartu PPko Vanessa Velez zinegotziak.

Arratsaldeko seietan puntuan hasi zen omenaldia. Zinegotzi gehienek eta ekitaldiz hurbildu ziren herritar batzuen aurrean Agurra dantzatu zuten Erketzeko dantzariak lehenbizi. Horren ostean, udaletxeak onartutako adierazpena irakurri zuen Pablo Barriok. Honela dio:

"Etorkizuneko bakeak eta bizikidetzak biolentziaren bidegabekeriaren aitortzea eskatzen dute, sortutako minaren eta biktimen duintasunaren aitortzea, biktima guztiak egitarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea dutelarik".

Testua irakurri ostean, lore-sorta utzi zuten udal ordezkariak Gotzon Huegunek egindako 'Geroaren Memoria' eskulturaren oinetan. Ekitaldira gerturatutakoek hamabost minutuko isilunea egin zuten ondoren, biktimak gogoratu eta errespetua adierazteko.

Sasoeta Sasoitu! azken saioa

Sasoeta Sasoitu!" egitasmoaren azken urratsa izan zen larunbatekoa. Andatza plazan bizilagunekin azken saioa egin zuen Hiridunak talde teknikoak. Auzoan libre geratuko diren espazioak nola diseinatu erabaki nahi izan du udalak aditu eta bizilagunen arteko elkarlana sustatuz.

Amalur Trikiti eskolako haurren doinuek animatu zuten larunbat goizeko lan saioa. Aurrekoan bezala, haurrek ere auzoa nola irudikatzen duten edo bertan zer nahi duten adierazi zuten marrazki zein maketa bidez.

Denek aukera izan zuten aukeratzeko espazio ezberdinetan zer nahi duten kokatzeko, aipatu behar da, jokoak eta kirola egiteko ekipazioak izan zirela gehien eskatutakoak. Baita berdegune eta atsedena hartzeko lekuak ere azken hauek auzoko nagusienei begira.

Teknikariak eraitsiko den orube baten tamaina irudikatu zuten plazan bertan, bizilagunek argiago ikusteko tamaina horretako gunean sartzen direnak.

Jasotako informazio guztiarekin adituen txanda da orain.



Bizilagunek Andatza plazan egin ahal izan zituzten azken proposamenak.

GOIEGI
Jatetxea - Restaurante

Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

SANTA CECILIA
gau berezia
Azaroaren 22an

AFARIA
Sarrerak
Plater nagusia
Etxeko postrea
Kafea
Edariak eta Kaba

28 €
eta gaua ondo
bukatze...

DANTZA

Lander Garro Idazlea

"Asko du autobiografikotik"

"Gerra Txikia" bere azken eleberriaz hitz egingo du bihar Irakurle txokoan Erretereriako idazleak

Hilabeteroko hitzorduari jarraiki, bihar 18:00etatik aurrera Manuel Lekuonan Irakurle Txokoa izango da. Uxue Alberdiren gidaritzapean parte hartzaileek Lander Garroren "Gerra Txikia" eleberriaz mintzatuko dira. Kasu honetan, idazlea ere etorriko da bisitan eta berarekin elkarbanatu ahal izango dituzte irakurketan izandako zalantza edota iritziak. Lander Garroren bigarren nobela da hau eta errefuxiatu bizitza du ardatz.

TXINTXARRI

Idazko ibilbideari jarraiki, Irakurle Txokoak euskal literaturako lan ezberdinak lantzen jarraitzen du. Uxue Alberdi idazlearekin batera hilerio herritarrek aukera dute literaturaz mintzatzeko. Saio batzuetara idazleak ere gonbidatuko dituzte aurten iaz egin bezala eta hain zuzen, ikasturte honetako lehengo gonbidatua Lander Garro izango da.

Erretereriako idazleak bere bigarren eleberriaren inguruko esperientziak trukatu ditu herritarrekin.

80.hamarkadan Euskal

Herrian gertatutako jazoera gogorrez filmak, nobelak ari dira agertzen orain, horietako bat da "Gerra Txikia". Beharra dago historiaren pasarte ilunak gogora ekartzea? Zergatik ez da lehenago idatzi?

Historia ez da gertakari hutsez egindako egitura finkoa, baizik eta komunitate batek bere buruaz egiten duen kontakizun subjektiboa, oinarrian pasarte zehatz batzuk dauzkana, baina bere modura interpretatzen eta epaitzen dituen. Labur esanda, guk geure buruari kontatzen dioguna, horixe da geure buruari buruz daukagun sentimendua edo ustea.

Idazleok, noski, horrekin guztiarekin lotura handia daukagu eta kontakizun horretan ahots garrantzitsua izan gaitezke. Zergatik ez da gehiago idatzi? Gai mingarria delako, korapilatsua, eta, beraz, zaila.

Zure aita errefuxiatua izan zen, zuretik asko al du nobelako istorioak? Biografia kutsua al du?

Bai, asko du autobiografikotik, nahiz eta ez den autobiografia bat. Esan nahi dudana da fikzioak behar dituela elementu batzuk interesgarri izan nahi badu, eta batzuetan bizitza erreala ez da horren interesgarri, eta, zentzu horretan, hainbat tranpa (gezur) erabili behar izan ditut nobelaren mesedetan.

Xabi Ugarte 12 urteko gaztetxoa da protagonista. Zergatik erabili duzu nerabearen ikuspegia?

Alde batetik ez nuen politikaz eta munduaz irudi

zehatz eta irmo bat zeukan kontalaririk nahi. Nolabait esan, kanpotik begira ari zen norbaitek ikuspegia nahi nuen, ez dakienaren eta epaitzen ez duenaren xalotasuna. Bestetik, haurtzaroa kosmos erakargarria egiten zait, umearen optimismoa, umearen baliabideak aurrera egiteko, eta abar. Haurtzaroa asko erakartzen nau idazle bezala.

Lasarte-Oriako irakurle txokora zatoz. Nolako esperientzia da idazlearentzat irakurleekin elkartzea?

Idazleak, idazten duenean, hitz egiten du. Badauka buruan norbaitekin ari dela, eta norbait horri ari zaiola istorioa kontatzen. Ez da bakarrizketa bat, ez da emoziorik edo asmorik gabeko diskurtso

bat. Nahi luke konplizitatea bat, enpatia bat, eta, horregatik, irakurlearekin biltzea, nolabait, zirkulua ixtea bezala da. Irakurlea aurrean dauka azkenean idazleak, eta jakin dezake elkarrizketa horren emaitza zein dena, zer eragin duen, eta abar. Oso polita da benetan.

Zer iritzi duzu halako txoko eta tailerren inguruan?

Iritzi zoragarria, noski. Gauza ederra da herriko jendea zure liburuaren inguruan biltzen dela sentitzea. Oso oso esker oneko sentitzen naiz talde guztiekiko.



Argia/Dani Blanco



Donostiatik 6 minututara bakarrik,
A1-erako sarrera zuzenarekin

✓ Etxebizitzak **185.000 €-tik aurrera**, terrazekin eta Santa Barbararako bista inbidiagarriekin.

✓ Erabateko pertsonalizazioarekin!



Kutxabank-en erakundearen finantzaketarekin



www.zabaletaberri.es

943 36 89 42

KIROL-PLANA..

‘Jolasteko eta jokatzeko’ plana prestatu du Udalak

Etorkizuneko plan estrategiko bat burutzea da helburu nagusia, azterketa egitearekin batera

“Herriko kirol eta jarduera fisikoa orokorki aztertzea eta plan estrategiko bat egitea”. Erronka hori planteatu du Udaleko kirol departamentuak 2014rako. Bi lan horiek gauzatzeko, ‘Jolasteko eta jokatzeko’ izeneko plana garatuko du. Udaleko Kirola, Gazteria eta Festak saileko arduradun Tasio Arrizabalagak, Udaleko kirol teknikari Karlos Altunak eta Murua enpresako kide Maitane Elduaiek aurkeztu zuten egitasmoa asteazkenean.

INIGO GONZALEZ

Taxio Arrizabalagak ‘Jolasteko eta jokatzeko’ plana garatzearen zergatiak aipatu zituen lehenik. “Hiru arrazoi nagusi” daude, zinegotziak esan zuenez: “Norbanakoek eta herriko eragileek egiten duten kirol eta jarduera fisikoak ezagutu nahi ditugu. Horrez gain, eragile guztien beharren eta proposamenen berri izan nahi dugu, gero sare bat osatzeko. Azkenik, etorkizunera begira plan estrategiko bat osatu nahi dugu, guztien behar eta ekarpenak aintzat hartuta hemendik aurrera eman beharreko pausoak zehaztuko dituen”.

Herriko kirolaren egoeraz

Asteazkenean aurkeztu zuten ‘Jolasteko eta jokatzeko’, baina badira hilabete batzuk lanean hasi zirenetik. Arrizabalagak zehaztu zuenez, planaren lehen fasea amaitu da jada. Lasarte-Oriako kirol eta jarduera fisikoaren egungo egoera aztertzea izan da lehen urrats hori. Horretarako, Murua enpresaren laguntza izan du Udalak. Arrizabalagak gaineratu zuen Udalaren webgunean eske-

giko dituztela azterketaren emaitzak, herritarrek kontsultatu ditzaten.

Maitane Elduaiek Murua enpresako kideak esan zuen “datu-bilketa garrantzitsu bat” egin dutela, herriko hainbat eragile eta elkarerekin elkar-lanean: “30 bat bilera egin ditugu Lasarte-Oriako kirol, kultur eta aisialdi elkarteekin. Adineko pertsonekin eta udaleko sail desberdinetako teknikari eta zinegotziekin ere egon gara”.

Horrez gain, Lasarte-Oria Bai! Krosaren egunean karpa bat jarri zuten Okendo plazan, herritarren iritzia ezagutu eta jasotzeko. “Hiru hilabetez aritu gara elkarriketak egiten, eta karpan jasotako informazioarekin batera osatu dugu Lasarte-Oriako jarduera fisikoaren eta kirolaren argazkia”, adierazi zuen Elduaiek.

Bigarren fasea

Abian da dagoeneko planaren bigarren fasea, aurkezpenean zehaztu zutenek. “Udalak etorkizuneko eduki beharreko helburu eta lan ildoak finkatzea” izango da fase horren xedea. Hori lortzeko, bost dinamika antolatu ditu udaleko kirol departamentuak; adin



Maitane Elduaie, Taxio Arrizabalaga eta Karlos Altuna hedabideei azalpenak ematen.

talde zehatz bati zuzenduta egongo da dinamika horietako bakoitza.

Etzi egingo dute lehenengo dinamika, arratsaldeko 18:30ean, kiroldegian. Egun horretan 6-16 urte tarteko eskaintzaren inguruko proposamenak jasoko dituzte.

Etziko saioaz gain, beste lau dinamika gehiago egingo dituzte. Horietako hiru toki eta ordu berean izango dira; aldatuko diren gauzak egunak eta adin-tartea izango dira. Azaroaren 24ean 17-30 urte tarteko txanda izango da; 31-65 urte bitartekoena 26ean, eta abenduaren 1ean 65 urte baino gehiago dituzten proposamenak jasoko dira. Aipatzeko falta den dinamika Ttakun Kultur Elkar-tearekin egingo da; Kuadrillategi egitasmoan parte hartzen duten gazteekin bilduko dira (DBH 1etik 4. mailara artekoekin), euren iritzia eta ideiak entzuteko.

Tasio Arrizabalagak zehaztu zuen “irekiak” direla dinamika, eta “interesa daukan

edonork” har dezakeela parte saio horietan: “Herritar guztientzako plan bat egin nahi dugu, herritar guztien parte-hartzearekin”.

Lehen faseko emaitzak

Karlos Altuna Udaleko kirol teknikariak azaldu zituen datu-bilketa eta azterketa egin ostean ateratako zenbait ondorio. Hiru atal bereizi zituen azalpenak ematerako orduan: ahuleziak aipatu zituen aurrena, indarguneak ondoren, eta aukerei buruz hitz eginez amaitu zuen.

Ahuleziei dagokienez, Altunak aipatu zuen kirol instalazioen egoera “kaxkarra” dela: “Berrikuntza edo moldaketarik egin ezean eta erabiltzaileen kopurua igo egiten bada arazo larriak sortuko dira datozen urteetan”. Horrez gain, azpimarratu zuen “eskasa” dela emakumeen presentzia kirolean, eta “indartu beharreko aspektua” dela hori. Beste ahulezia baten berri ere eman zuen: “Kirolarien kopurua jaitsi egi-

ten da eskola kirolek elkar-teetara pasatzen direnean. Kontuan hartu beharreko datua da hori”.


Oro har, zenbait ahulezia identifikatu dituzte, baina indarguneak ere bai. “Eskola kirolaren eskaintza zabala da oso. Horrez gain, Udaleko sail desberdinak dinamikoak dira eskaintzak egiterako orduan. Azpimarratu behar da baita ere euskarak pisua duela herriko kirol jardueretan; zaintzen eta sustatzen den elementu bat da”, jakinarazi du Altunak.

Lasarte-Oriako kirol eta jarduera fisikoaren argazkian beste atal bat da aukerena. Horiek ere azaldu zituen Altunak: “Kirol eskaintzak egiten dituzten eragileek agenda komun bat osatu beharko lukete, eskaintza bateratzeko. Bestalde, bidegorrien sarea osatzea interesgarria da. Hirugarrenik, Osasun sailaren eta kirol eskaintzaileen arteko elkarlana mantendu behar da”, esanez amaitu zuen agerraldia.

PALA..

II bikote emakumezkoen txapelketan

Bigarren urtez herriko neska talde batek antolatu zuen larunbatean emakumeentzako pala txapelketa Loidi-Barrenen. Antolatzaileak pozik azaldu ziren txapelketak berak izandako erantzunarekin izan ere, hamaika bikote aritu ziren larunbata goizean lehian. Hamar minutuko partida azkarrak jokatu zituzten bikoteek. Goizari amaiera borobila emateko, parte hartzaile zein hauen lagunek bazkaria egin ahal izan zuten Avenidan.



Hamar minutuko partida azkarrak jokatu zituzten parte hartzaileek.

IGERIKETA..

Neguko Ligako lehenengo jardunaldian emaitza onak Buruntzaldea IKTk

Pasa den larunbatean Neguko Ligako 1. Jardunaldia lehiatu zuen Buruntzaldea IKTk Hernanin. Guztira taldeko 23 igerilari aritu ziren urteko lehen jardunaldi honetan infantil, junior eta absolutuen kategoriatan. Igerilari guztien artean 39 marka pertsonal egitea lortu zuten eta horietatik lau taldeko errekor berriak izan ziren.

Jone Vazquezek bere 1500 libreko marka pertsonala eta froga honetako taldeko absolutu mailako errekorra egitea lortu zuen (20'11"82), aurreko denbora 12 segundotan hobetuz. Nahia Jie Villamedianaren 100 tximeleta froga (1'15"76), Itsaso Tolosaren 100 libreko froga (1'04"59) eta Mikel Sotoren 50 bular frogako marka (35"15) taldeko errekor berriak izan ziren.

Horretaz gain, taldeko infantil gehienek Neguko Gipuzkoako Txapelketarako sailkapen zuzena eskuratu zuten.



— Agenda —

Larunbata, 18:00etan Manuel Lekuonan



Erpurutxo oholtzan

Teatro Paraiso konpainiaren "Erpurutxo" haurrentzako antzezlanak ikusteko aukera izango da larunbatean. Erpurutxo kontakizunean, ume txiki eta azkar batek anai-arreba eta senide guztiak salbatzen ditu, nahiz eta gurasoak, baliabiderik ez zutelako etsita, basoan utzi. Ipuina iruditeria kolektiboaren parte da. Nor ez da basoan galdu eta bakarrik gelditzearen beldur izan? Nork ez du etxera itzultzeko harritxo zurien arrastoa inoiz irudikatu? Sarrera Interneten 2,70 euro, leihatilan bertan 3 euro.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 21, 22:00etan

"Magical girl" filmaz gozatu ahal izango da Okendo zinema taldeak antolatzen duen Zine Forum saioan. Aurtengo Donostiako Zinemaldian urrezko maskorra eraman zuen filma onenari eta zilarrezko maskorra eman zion epaimahaiak bere zuzendariari, Carlos Vermuti hain zuzen. Sarrera Interneten erosita 4,24 euro eta bertan 4,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 23, 17:00etan

"La leyenda del martillo mágico: Thor" filma ikusteko aukera izango da haurren zinema atalean. Sarrera Interneten 3,18 euro eta egunean bertan erosita 3,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 23, 19:30ean

Donostiako Zinemaldian saritua izan zen "Magical girl" filma helduen zinema atalean. Sarrera Interneten 5,30 euro eta bertan 5,90 euro.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 27, 18:00etan

Kontukantoeikin ipuin kontalari saioa. Honakoa 6, 7 eta 8 urteko umei zuzenduta egongo da. Doan. Haurrak bakarrik sartuko dira eta saioa puntual hasiko dela azpimarratzen dute liburutegiko arduradunek. Behin saioa hasita, ezingo da bertara sartu.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 20, 19:00etan

Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleek kontzertu berezia antolatu dute Santa Zezilia, musikarien eguna dela eta. Urteroko hitzorduari jarriki, orain arte ikasitakoa erakutsiko dute festa giroan.

ELEBELTZ

Azaroak 22, 21:00etan

Gabezia, Hilotz, Izu Nauk eta Melt down taldeen kontzertua izango da Elebeltz topagunean. Sarrera 4 eurokoa izango da.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Azaroak 07-21

Patxi Fernandezek akuarelak ikusgai izango dira erakusketa aretoan. Ohiko ordutegian.

JALGI KAFE ANTZOKIA

Azaroan zehar

Urriaren 18an ospatu zen Euskal Jaiko argazki erakusketa ikusgai izango da hilabete osoan zehar Jalgin. Egun horretan ateratako argazki guztien artean, herriko Etxarri argazki dendak osatutako bilduma da.

Jaialdia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 29, 18:30ean

Gure Ametsa-Jalgune elkarteak kideek urteroko Jaialdi erraldoia egingo dute kultur-etxean. Honetarako kanta eta dantza zein antzerki bereziak antolatu dituzte eta jai giroan, festan parte hartzera gonbidatzen dituzte herritarrak.

— Herritarren txokoa —

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota: hamar txirrinda, bi mugikor, bi pultsera, bideo joko bat, monopatina, bi diru zorroa, bateria eta urrunetik gidatutako auto kargatzailea, hortz protesi bat, graduatutako betaurrekoak eta eraztun bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 9:00etatik 13:00etara.

Kromo Aldaketa

Herritar talde bat Okendon igandetan kromo aldaketak egiteko hitzordua egiten hasi da 12:00etatik aurrera. Kromo bildumak osatzeko zaletasuna duten guztiak animatzen dituzte bertara gerturatu eta trukean aritzeko.

Usurbilgo Lanbide Eskola

2014ko ekainean ikasketak amaitu zituzten ikasleek tituluaren eskaera egiteko aplikatiboa martxan dago eta epe laburrean eskolatik pasa behar

dute. Bestalde, 2013an titulua eskatu zutenek hau jasotzera pasa daitezke.

Txintxarri banaketa

Aldizkariaren banaketan hainbat aldaketa egin ditugu. Hauek finkatu bitartean, gerta daiteke aldizkaria etxean ohiko ordutegian ez jasotzea. Hau gertatzen bada eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea.

63an jaiotakoen afaria

Kaixo 63an jaiotako guztiei! Aurten ere afaria egitekotan garela jakinarazi nahi dizuegu. Azaroaren 22an izango da afaria, oraingo honetan Abenden gaueko 21:00etatik aurrera. Aurrez, 20:00etan Okendo plazan elkartzeko asmoa daukagu pote batzuz hartzeko. Aurten ere menuaren prezioa 36 eurokoa izango da. Joan nahi duzuenok dirua Laboral-Kutxako ES24 3035 0036 1003 61134420 kontu korrontean sar dezakezue. Harremanetarako telefonoak: 696 914 566 edo 657 770 318. Anima zaitezte!

— Sarean —

Landaberriko LMLK-ko ikasleak kazetari



Jokin Hidalgo eta Julen Urruzola

Landaberri BHiko ikasleek LMLK tailerrean egindako lehenengo albistegia dago ikusgai sarean. Orain arte ia zuzen hasitako bideari jarriki, ikasleek Txintxarri.info-ko Gazteak atalean idatzi dituzte euren intereseko gaien inguruko albisteak. Lan honekin jarraituko dute astero-astero baina ikasturte honetan beste erronka bat izango dute eta hain zuzen, landutako albiste eta informazioarekin albistegi bat osatu beharko dute.

Taldeka banatuta, ikasleak arduratuko dira lan guztiaz, gidoiaren erredakzioa, aurkezle eta kale erreportari lanak banatu, kamara eta dekorazioa... eta dagoeneko lehenengo taldeak egin du albistegi berezia. Txintxarri.info-n eskegitzeaz gain, Youtuben dago honako helbidean: <https://www.youtube.com/watch?v=AfDj8q91rFs&index=4>

Ikasturtean zehar albistegi gehiago egingo dituzte eta herritarrak euren lana jarraitzea animatzen dituzte.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Gure Esku Dago Tutorea

“Parte hartzetik, parte izatera pasa behar da”

70 tutore eta 1.400 saretu lortu behar ditu herriko Gure Esku Dago lantaldeak ikasturte berrian

Herriko Gure Esku Dago lantaldeak ikasturte berrirako erronkak finkatuta ditu jada. Aurtengoan GED Tutoreak izango du protagonismoa. Berak ikasturtearen norabidea marraztu eta azalduko du. Lasarte-Orian 70 tutore lortu behar dira eta bakoitzak 20 laguneko taldea osatuko du. Horrela ekintza berezietan parte hartzeaz gain, dinamikarekin herritarrek bat egitea nahi da. Herria saretu nahi dute gogotsu denen artean erabakitzeo eskubidearen alde lan egiteko.

Maidar AZURMENDI

Tutorea da protagonista ikasturte honetan Gure Esku Dago dinamikan. Ekainean egin zen giza katean parte hartzea handia izan zen, 950 herritarrek hartu zuten parte eta herriko taldeak helburu guztiak erraz gainditu zituen.

Azaroaren 8an Zurriola hondartzan egin zen mosaikorako tiketak Okendon saldu eta herritarren presentzia bermatu zuen taldeak. Martxan daudela erakutsi dute eta ikasturte berrirako erronkak ere finkatuta daude; aurtengo talde eragilearen protagonismoa tutore eta saretuek hartuko dute.

Oraingoan, herritarrek parte hartze soiletik, dinamika-ren parte izatera bideratu nahi ditu Gure Esku Dagoko lantaldeak. Helburua, herrian 70 tutore lortzea da eta tutore bakoitzak 20 pertsonako taldea osatu eta saretu beharko du. Azken ekintza Anoeta estadioan egingo da ekainaren 20ean. Bertan postontzi bat irudikatuko da herri bakoitzak jositako oihalararekin.

Edozein izan al daiteke tutore?

Lagun talde eta familia guztietan egoten dira pintxo potean botea eramaten duten edota noizean behinkako bazkari eta afariak antolatzen dituzten “saltseroak”, beraien burua 20ko taldea dinamizatzeo prest ikusten dutenak edota ilusioz herria piztu eta aktibatu nahi dutenak. Hauek lirateke proposenak Gure Esku Dago dinamikan tutore izateko, eta bere saretuen taldea gidatzeko. Nik hainbat eta hainbat eza-gutzen ditut herrian.

Zer egin behar du tutore batek?

Tutore bakoitzak gure bueltan 20 pertsona bildu beharko ditugu eta dinamikan parte izatera gonbidatu. Hau da, saretu. Tutoretzaren ardura taldetxo

bakoitzean biren artean banatzeko aukera ere izango da, taldeak berak erabakiko du bere funtzionatzeko modua zein izango den.

Tutoreak Gure Esku Dagoko lantaldearekin kontaktuan egongo gara eta bertan jasotako informazioa gure 20ko taldeari pasako diogu. Aldi berean, guk tutoreok, gure saretu taldetik sortzen diren iritziak eta proposamenak jaso eta lantaldeari jakitera emango dizkiogu.

Azkenean, Gure Esku Dagoko lantaldea eta saretuen, herritarren, arteko informazio transmisioa bermatuko duen pertsona izango da tutorea, bi norabideetan.

Zer esan nahi du saretua izateak?


Orain arte herritarrok dinamikan parte hartu dugu antolatutako ekintza ezberdinetan, aurtengo saretuko garen neurrian, dinamikaren parte izango gara. Saretu bakoitzak tutoreak pasatzen dion informazioa bereganatu eta bere inguruan zabalduko du. Horren aurrean sortu daitezkeen erantzunak, kritikak edota zalantzak, bueltan jakinaraziko dizkio tutoreari.

Ikasturte honetan, beraz, Gure Esku Dago dinamikan parte hartu nahi duen orok, saretua izan beharko du edo tutore bihurtu.

Nola lan egingo du tutoreak saretuekin?

Tutore eta saretuen arteko harremana eurek erabakiko dute nola egin, zein foro erabili informazio trukea errazteko.

Ziur batzuek, bazkariak edo afariak antolatuko dituztela, beste batzuek eguneroko bizitzako ikastaro, autobus geltokiko itxaronaldi, seme-alaben eskolaz kanpoko ekintza edo bilerak erabiliko dituzte saretuekin elkartu eta informazioa elkartrukatzeko. Beste askok, email, facebook edota WhatsApp talde bidez lan egingo dute, batez ere.



Saretu izateak ez du lan karga handia suposatuko, bakoitzak bere neurriko tokia bilatu beharko du sare horren parte izateko.

Saretuengana iritsitako informazioa bertan amaitu ez dadin, saretuei informazio hori beraien inguruan ere zabaltzea eskatu nahi diet.

20ko taldea osatzeko gauza izango ez bazinate, lasai, nik jarriko zintuzketet beste taldetxo batzuekin harremanetan guztion artean 20ko multzoak osatzeko; denok izango dugu sarean tokia eta!

Zein da lan honen helburua?

Ekainaren 20an ekintza egingo du herrialde bakoitzean Gure Esku Dagok, gure kasuan Donostian, Anoeta estadioan.

Bertan, herri bakoitzean jositako tela zatiekin postontzi handi bat osatuko da. Tutore bakoitzak tela zati bat izango dugu eta 20 saretuek elkarbanatuko dute tela zati hori.

Ekintza ezberdinak egin beharko ditugu herri mailan, tela zati horiek josteko. Herritar ezberdinek sare osatuko dugu. Lasarte-Oriako zatia egiteko, helburua da 70 tutore lortzea, eta 1.400 herritar saretzea. Josiko dugun tela zati hori izango da herrian osatuko dugun sarearen errepresentazio fisikoa. Beraz, josiko ditugunak ez dira oihal zati soilak; herriko iritzi, pertsona eta “kolore” ezberdinak baizik, guztiontzako oso aberasgarria izango da ziur esperientzia berri hau.

Oihal hori egitea aitzakia bat izango da herri bakoitzean

herritar sare batu bat osatzeko. Behin gure herriko saretzea lortuta, inguruko herrietako oihal zatietara batu eta Gipuzkoakoa osatuko dugu.

Herri mailan zein ekintza aurreikusten dira?

Gabonetan lehenengo ekintza egin nahi dugu. Orduan bildu nahiko genituzke dagoeneko lortutako tutore eta saretu multzoa. Martxan jarri garela erakusteko balioko du lehenengo agerraldi honek. Otsailan, beste ekintza bat egin nahi da, kasu honetan, tutore eta saretu kopuru potoloarekin kontaktu nahiko genuke.

Apirilaren 25ean Euskal Herri mailako ekintza izango da. Herri bakoitzean Gure Esku Dago festa egingo da eta egun horretan, herri bakoitzak lortutako tutore eta saretu zifra ofiziala eman beharko da.

Gure helburua da, egun horretarako 1.000 saretu izatea eta tela zatiak gure artean josten hastea. Ekainerako 1.400ak lortzea litzateke azken helburua eta erronka handia. Ez da lan erraza izango baina ziur nago lehenengo urtean piztu genuen ilusio garra oso bizirik dagoela eta guztion artean aurtengo ere erronka gainditzeko gai izango garela.

Tutore izan nahi dutenek zer egin behar dute?

Lasarte-Oriako tabernetan tutore bezala izena emateko orriak jarri dira eta Gure Etxea tabernan postontzi bat, hor utzi beharko da orria.

Hala ere, informazio gehiago nahi bada, gedlasarteoria@gmail.com helbidera idatzi

dezakete herritarrek, eta neronek erantzungo nieke; herritarrei laguntzeko prest izango naiz beti!

Abenduaren 9an kultur etxeko hitzaldi aretoan 19:00etan bigarren tutore bilerak izango da eta irekia izaki, nahi dutenak joan ahalko dira.

Zein talde ari dira orain lanean Gure Esku Dago dinamikaren baitan?

Saretze lantaldearekin batera, komunikazio, ekonomia eta ekintza lantaldeak ari dira gogotsu dinamika aurrera ateratzeko lanetan.

Ekonomiari dagokionez, bereziki azpimarratu nahi dut taldeak ez duela dirulaguntzarik jasotzen eta ekintzak finantziaztea posible izan dadin, kamisetaz gain material berria ere salgai jarriko dugula.

Aipatu Lantalde horiei laguntzeko, lehenengoz Lasarte-Orian, Adosgunen bat sortu nahi dugu. Bertan parte hartuko duten herritarrek, orain arteko ibilbidea kanpotik ikusi eta baloratu beharko dute. Aniztasuna eta iritzi ezberdinetako jendearen parte hartzea lortu eta zainduko du bereziki talde honek. Euren lana beste esparru eta beste jende baten-gana iristea izango da. Dinamika zabaltzeko lana egingo dute azken batean.

Gogoratu nahi diet herritarrei, lan talde guztiak irekiak direla eta herritarrek hauek parte hartu dezaketela.

Animatu beraz, elkar-josi gaituzten eta sortu dezagun Lasarte-Oriako sare! Aurtengo erronka gainditzeko ere Gure Esku Dago eta!